



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

JARDUKETA ETA ESTRATEGIA METODOLOGIKO INKLUSIBOAK

2019-2020

Hezkuntza-esparrua

Eskola inklusiboaren printzipioak eta gakoak

Ikasgelan jarduteko jarraibide batzuk

Estrategiak:

1. PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA
2. IKASLE ENBAXADOREA
3. IRAKURKETA GIDATUA
4. LANKIDETZA-IKASKUNTZA
5. BOLUNTARIOEN LAGUNTZA IKASGELETAN ETA IKASTETXEAN
6. KONTRATU PEDAGOGIKOAK
7. BI IRAKASLEREN BATERAKO JARDUKETA IKASGELAN
8. TALDE INTERAKTIBOAK
9. BIKOTEKA IRAKURTZEN / LEEMOS EN PAREJA
10. GIDARITZA
11. SIOP EREDUA
12. LITERATURA-SOLASALDI DIALOGIKOAK
13. CURRICULUM-SOLASALDI DIALOGIKOAK
14. TUTORETZA PERTSONALIZATUAK
15. BERDINEN ARTEKO TUTORETZAK
16. FLIPPED CLASSROOM
17. GAMIFIKAZIOA
18. VISUAL THINKING

Jarduketa eta estrategia metodologiko inklusiboak

HEZKUNTZA-ESPARRUA

Hezkuntza Sailaren Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Planaren (2019) arabera, *aniztasuna aberastasun sozial eta pertsonaleko faktore gisa hartu behar da, zeina berezkoa baitzaio etengabe aldatzen ari den gizarteari.*

Dibertsitatea edo aniztasuna aitortzea eta onartzea ez da justizia- edo zuzenbide-kontua soilik. Historiak ongi erakutsi digunez, gizateriaren aurrerapen guztiguztiak askotariko jendearen arteko interakzioaren ondorioz sortu dira. Beste pertsona batzuen ekarpenak onartzeko gai izan garen neurrian, hazi egin gara, aukerak zabaldu ditugu, aurrera egin dugu zientzian eta jakintzan eta, azken batean, gizaki gisa bilakatu gara.



Horrela, beraz, kontua ez da eskolak dibertsitatea dagoela onartzea, besterik gabe. Batez ere, dibertsitateari ematen diogun erantzuna egokia den, pertsona guztiek eskola-jardueretan berdintasun-baldintzetan parte hartzeko balio duen, denek beren gaitasunak neurririk handienez garatzea lortzen dugun eta egungo eta etorkizuneko gizarterako pertsona trebeak, aktiboak eta kritikoak osatzen ditugun aztertu behar dugu.

HEZIBERRI hezkuntza-eredu pedagogikoaren Markoan azpimarratzen denez, *eskola inklusiboak ikasle guzti-guztiek eskaini behar dizkie hezkuntzan aurrera egiteko aukera berberak, baita ikasketetan eta beren bizitzan ezinbesteko gerta lekiekeen edonolako laguntza ere (curriculumean, beren bizitzan, laguntza materiala...), nor bere autonomia garatzeko gai izan dadin. Testuinguru bat eraikitzea, horixe da kontua, baita hura pertsonen bizimodura egokitzea ere, neska-mutilen artean egon litezkeen desberdintasunei aurre egin eta talde nahiz pertsona zaugarrienei beharrezko gerta lekizkiekeen babes eta laguntza espezifikoak bermatzeko.*


Beraz, dibertsitatea inklusibitatearen eta ikaskuntzen bizkortzearen eragile gisa defendatzen duen paradigma horretatik abiatuta, honako hiru esparru hauek azpimarratu behar dira:

Esparru pertsonala. Denak desberdinak gara. Hezkuntza-sistemak pertsona guztiak onartzen ditu, beren desberdintasunekin, ikastetxearen partaide direla sentiarazten die, eta beren garapen pertsonalean laguntzen die (garapen kognitiboan, emozionalean eta sozialean).

Ikasgela dibertsifikatua. Hezkuntza-jardunak ikasle guztien parte-hartze aktiboa bultzatzen du, eta, aldi berean, banakako eta taldeko jarduerak sustatzen ditu. Giro sozioemozional interesgarri batean, ikasle guztiak ikasgelako jardueretan parte hartzen dute, beren gaitasunak garatzen dituzte aldez aurreko mailetatik eta aukeretatik abiatuta, eta ikaskuntza-produktuak sortzen dituzte hainbat hizkuntzatan (euskarriak, formatuak, hizkuntzak eta abar).

Ikastetxea. Ikastetxea segurua da, eta ahalbidetzen duen espazioen erabilerak giro abegikorra sortzen du, askotariko ikasleen ikaskuntza-premia guztiei erantzuteko modukoa. Eskola-antolamenduari esker, ikastetxe osoa eta ikasgela guztiak inklusiboak dira. Gainera, laguntza eskatzen du hezkuntza-komunitate osoan, eta ingurunearen interakzioa eta lankidetzak bultzatzen du (gizarte-zerbitzuena, kultura-elkarteen, kultura-taldeena, tokiko erakundeena eta abar).

Proposamen inklusibo orok **Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren** (IDU) paradigma hartu behar du bere gain. Diseinu horrek giza dibertsitatearen ideia du abiapuntu (ikasle bakoitzaren ikaskuntzak sendotzen eta aberasten ditu), eta ikasle guztiak erraz eskuratzeko moduko curriculum inklusibo bat lantzeko jarraibideak proposatzen ditu. IDUak egoera eta gaitasun guztietarako beharrezkoak diren doikuntzak egitea aurreikusten du programazioan bertan, eta modu berezian egokitzeko edo berriz diseinatzeko premia murrizten du.



Ikuspegi inklusibo horretan, beharrezkoa da profesionalak eta eskola-komunitatea osatzen duten guztiek baliabide mota oro mobilizatzea, akordioak adostea, neurriak hartzea eta ikasteko interakzioguneak sortzea. Hori dela eta, *estrategia metodologikoe*k garrantzi handia hartzen dute, *maila bereko pertsonen arteko interakzioa ahalbidetzen baitute kalitatezko ikaskuntza-pizgarri ugari ematen dituzten testuinguru normalizatuetan, eta, horrez gain, baita tutoretzen eta aholkularitza- nahiz orientabide-zerbitzuen bitartez ikasleei arreta pertsonalizatua izateko aukera ematen dietelako ere.*¹

Aurkezten dugun proposamena **konpetentzien bidezko irakaskuntzan** oinarritutako "Heziberri 2020" hezkuntza-ereduan kokatuta dago. Hezkuntza-funtzioa, Heziberri hezkuntza- eta pedagogia-esparruaren arabera, honako hau hartzen du kontuan: *eskolari eskatzen zaio pertsona osoki garatzen lagundu dezala maila guztietan (fisikoa, kognitiboa, estetikoa, komunikatiboa, soziala, afektiboa, espiritual...) eta lagundu dezala enplegurako prestatzen eta herritar arduratsuak prestatzen*. Hortaz, "[problema-egoeretan](#)", hots, ikasleek konpondu behar dituzten eta jakintzak integratzen eta geroago egoera berrien aurrean erabiltzen lagunduko dieten egoera konplexu eta esanguratsuetan aplikatutako konpetentzia ugari garatzeko esparru pedagogiko bat proposatzen du Heziberrik.

¹ [HEZIBERRI 2020](#)

ESKOLA INKLUSIBOAREN PRINTZIOAK ETA GAKOAK

Azken hamarkadetan hezkuntza-sistemei eta hezkuntza-jardunei buruz argitaratu diren azterlanak, ikerketak eta txostenak bat datoz eskola inklusiboak eskola-arrakasta eragiteko **gakoak** aipatzean:

Itxaropen handiak izatea eta komunikatzea. Ikasle guztien eskola-arrakastaren inguruko itxaropen zintzoa esplizitatzen da, itxaropen garbiekin eta ikaskuntzak bizkortzen dituzten proposamen aberats eta

"Hurbileko garapen-eremua". *Lev Vygotsky-ren* proposamenei jarraikiz, garapen-maila errealaren (ikasleak bakarrik egin dezakeenaren) eta garapen-maila potentzialaren (laguntzarekin egin dezakeenaren) artean dagoen distantzia hartzen da kontuan. Hau da, ikaskuntza era naturalean gertatzen da egoera kolektiboetan, interakzioa erraztearen bidez.

Ikasteko prozesuaren aberastea eta bizkortzea. Bikaintasuna sustatzen da, eta ikasle bakoitzari bere gaitasunek ahalbidetzen dioten zabaltasunarekin eta sakontasunarekin urrun eta bizkor iristeko beharrezkoak diren hezkuntza-baliabideak ematen zaizkio.

Interakzioa talde heterogeneoetan. Ikasgelak -eta patioak eta jangelak ere bai- gune heterogeneoak dira. Sentsibilitate desberdinak dituzten pertsonen arteko interakzioa sustatzen duen jardunbide batek ikasle guztien ikaskuntza aberasten du.

Ikaskuntza aktiboa. Egiten ikasteak, talde-lanak, sormenak eta arazoak konpontzeko trebetasunek duten garrantzia azpimarratzen da.

Dibertsitatea eta irakaskuntzaren pertsonalizazioa. Interakzioa bultzatzeko eta talde-jarduerak proposatzeko beharra azpimarratzeaz gain, adierazi beharra dago ikaskuntza pertsonala dela eta, beraz, irakaskuntzaren pertsonalizazioa ahalbidetuko duten neurriak hartu behar direla ikasleen dibertsitatearen arretarako.

Feedbacka. *Jerome Bruner-ek* garatutako "aldamioen teoriatik" abiatuta, *John Hattie-k* feedback egoki batek duen garrantzia azpimarratu du. Izan ere, ikerketak erakutsi du feedbacka elementurik eraginkorrenetako bat dela, eta ikasleei non dauden, zer ikaskuntza-helburu duten, helburua lortzeko zer ahalegin diren beharrezkoak, erronkei nola egin behar dieten aurre eta nola egokitu behar dituzten eta nola hobetu dezaketen adierazten dien atzeraelikadura da.²

Prebentzioa eta esku-hartze goiztiarra ikasteko zailtasunen aurrean. Irakasleen artean koordinatzeko neurriak proposatzen dira ikasleen gaitasunak goiz detektatzeko eta esku-hartzea egokitzeke, pertsona bere ahalmenik handienara irits dadin. Kontua ez da ikaslea bera ardatz bihurtzea, ikaslearen sarbidea, parte-hartzea eta ikaskuntza zailtzen dituzten oztopoak identifikatzea eta desagerraraztea baizik.

Eskola-komunitatearen parte-hartzea. Koordinazioa eta lankidetzak sustatzen dira ikastetxearen barruan zein kanpoan, alde batetik kanpoko eragileekin (erakundeekin, enpresekin, osasun-zerbitzuekin eta abar), ikasleei ikaskuntza-esperientzia gehiago eskaintzeko, eta, bestetik, familiarekin (informazioa emanez eta haiekin lankidetzan jardunez, ezarritako helburuak lortzeko).

² "[Las 10 reglas de oro para dar feedback a tus alumnos](#)" (Javier Touron)

IKASGELAN JARDUTEKO JARRAIBIDE BATZUK

Arestian adierazitako printzipio pedagogikoetan eta arrakasta-gakoetan oinarrituta, ikasgelako eguneroko jardunerako jarraibideak eskainiko dizkiguten proposamenak zehaztu behar dira, hala nola gure ikasleen ikasteko prozesuaren **jarraipen** zorrotzago eta hurbilago bati lotutako jarduketak (berrikuspenak, aldambioak eta feedbacka, aurrera egiten jarraitu ahal izateko) edota **ikaskuntza-ereduei**, egiaztapenei eta abarri lotutako jarduketak. Adibide gisa, *Barak Rosenshine-k* formulatutako irakaskuntza-funtzio edo "instrukzio-printzipio" hauek aipa daitezke³:

EGUNEROKO BERRIKUSPENAK

Aurreko eguneko lanaren berrikuspenak instrukzioaren oso osagai garrantzitsuak dira. Ikasleek gaizki ulertu duten edo hutsegiteak egin diren kasuan berriz irakastea irakatsi eta ikasteko prozesuak hobetzen dituen jarraibidea da. Izan ere, ikasitakoa sendotzen laguntzen du eta automatikoki gogoratzea ahalbidetzen du.

MATERIAL BERRIA URRATS TXIKIETAN

Komeni da ikasleak ez itotzea eta haien oroimena ez asetzea. Informazio berria urratsez urrats aurkeztu behar da, asmoa argituz eta adibide eta kontradibide asko eskainiz.

GALDERAK EGITEA

Jardunbide gidatuak, galderak egiteak, ikasleei arazo praktikoak ebazteko eskatzeak eta ikasleei entzuteak (ikuskerak- edo ulermen-hutsegiteak dituzten ikusteko) instrukzioa berriz planteatzea eta berriz azaltzea beharrezkoa den zehazteko aukera ematen diete irakasleei.

EREDUEZ HORNITZEA ETA FEEDBACKA EMATEA

Ereduak emateak (konponduta dauden arazoak emateak, irakasleak ozenki landutako pentsamenduak eta abar), atzeraelikadurak eta/edo erantzunetan oinarritutako zuzenketek arazo bat konpontzeko beharrezkoak diren urrats espezifikoak argitzen laguntzen diete ikasleei. Gainera, instrukzioa berriz formulatu behar den jakiteko informazioa ematen diete irakasleei.

³ http://www.guzlop-editoras.com/web_des/edu01/pld0832.pdf

ZEREGIN KONPLEXUETAN ALDAMIOAK EMATEA

Aldamioak zeregin konplexuen kasuan ikaskuntza babesteko ematen den aldi baterako laguntza bat da. Aldamioen barruan, honako hauek sar daitezke: ereduak, irakasleak ozenki garatutako pentsamendua, apunteak biltzen dituzten txartelak eta egiaztapen-zerrendak. Aldamioak

IKASLEAREN JARDUNBIDEA GIDATZEA

Irakasleek emandako instrukzioak eta ereduak nahikoak badira ere, ikasleek denbora gehigarri bat beharko dute jakintza berriak parafraseatzeko, lantzeko, laburbiltzeko eta oroimenean biltzeko. Behar adinako probak eginez gero, material hori erraz berreskuratuko dute, eta ikaskuntza berriak sustatzeko eta arazoak konpontzeko erabiliko dute.

IKASKUNTZA EGIAZTATZEA

Arrakastarik txikienak lortzen dituzten irakasleek honako hau galdetzen dute, besterik gabe: "Ba al dago galderarik?" Galderarik ez badago, arazorik ez dagoela interpretatzen da, baina hori ez da beti egia. Behin eta berriz egiaztatu behar da gure ikasleak ulertzen ari diren ala ez, eta berrikuspen-galderaren bat txertatu behar da zeregin gisa.

ASTEKO ETA HILEKO BERRIKUSPENAK

Ikasitako prozedurak eta kontzeptuak gogoratzeko ahalegina lagungarria da prozedura eta kontzeptu horiek oroimenean epe luzerako gordeta geratzeko. Errazagoa da arazo berriak konpontzea jakintza-gorputz aberatsa eta ongi konektatua edukiz gero eta konexioen artean lotura sendoak egonez

Gure ustez, azken hamarkadetan metatutako jakintza eta gero eta ugariagoak diren ikerketen emaitzak zabaltzeko lan trinkoa egin behar da, jakintza hori guztia iritsi behar duen lekura irits dadin, hau da, ikastetxeetara eta ikasgeletara irits dadin.

Horregatik, gure ustez garrantzitsua da askotariko proposamenak egin ahal izatea. Proposamen horiek, testuinguruaren eta ikasleen ezaugarrien arabera, hezkuntza-jarduna dibertsifikatzea, egokitzea, sendotzea eta aberastea ahalbidetuko dute, ikasle bakoitzaren hezkuntza-premiei erantzuteko.

Argitalpen honen bidez, ebidentzian oinarritutako hezkuntzaren zein ikasgelako jardunaren ikuspegitik ezinbestekotzat hartzen diren estrategia eta jarduketa metodologiko inklusiboen zerrenda bat eskaini nahi da.

Ikasle bakoitzaren ikaskuntza eta haren hezkuntza-premiei eman beharreko erantzuna ziurtatzeko garaian proposamen guztiak ezagutzera eta abantailak baloratzera animatu nahi zaituztegu.





AURKIBIDEA

19. PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA
20. IKASLE ENBAXADOREA
21. IRAKURKETA GIDATUA
22. LANKIDETZA-IKASKUNTZA
23. BOLUNTARIOEN LAGUNTZA IKASGELETAN ETA IKASTETXEAN
24. KONTRATU PEDAGOGIKOAK
25. BI IRAKASLEREN BATERAKO JARDUKETA IKASGELAN
26. TALDE INTERAKTIBOAK
27. BIKOTEKA IRAKURTZEN / LEEMOS EN PAREJA
28. GIDARITZA
29. SIOP EREDUA
30. LITERATURA-SOLASALDI DIALOGIKOAK
31. CURRICULUM-SOLASALDI DIALOGIKOAK
32. TUTORETZA PERTSONALIZATUAK
33. BERDINEN ARTEKO TUTORETZAK
34. FLIPPED CLASSROOM
35. GAMIFIKAZIOA
36. VISUAL THINKING

1. PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA

Ikasteko metodologia honetan, ikasleek, talde txikietan edo bakarka, egoera eta/edo arazo erreal batean planteatutako premiei erantzungo dien proiektu bat planifikatzen, sortzen eta ebaluatzen dute. Hainbat diziplina har ditzake eraginpean.

EZAUGARRIAK

Ikasleen edo hezkuntza-komunitatearen inguruneari, premiari eta/edo interesari lotutako motibazio batetik abiatuta, arlo edo diziplina guztiak edo batzuk globaliza daitezke, edota, jakintzagai jakin baten barruan, beste jakintzagai batzuetako jakintzak balia daitezke.

Irakasleek ikaskuntzak bultzatzen eta koordinatzen dituzte, eta bitartekari-lanak egiten dituzte. Garapena orientatzeko, gida moduko galderak, ebaluazio-irizpideak, laguntza materialak eta abar erabiltzen dituzte, eta ikasleek ikaskuntza aktibo bat egiten dute, prozesu indibidual eta sozial baten barruan.

Ikuspegi horren bidez, errealitatea "osotasun" gisa aurkez daiteke. Ildo horretan, ikasleak bere eskema propioetatik eta gainerakoek eskemekiko kontrastetik abiatuta eraikitzen ditu bere jakintzak eta, aldi berean, errealitatea bere osotasunean interpretatzen du.

Lan egiteko era horrek edukiak ikasgelan dauden kultura eta egoera desberdinetatik abiatuta eskuratzeko aukera erraztu dezake eta banakako lana eta talde-lana egitera bultzatzen du. Lan horiek egiteko, ikerketa-estrategiak eta estrategia kritikoak erabiliko dira, eta, horretarako, garrantzitsua da ikasleek metodo zientifikoak erabiliz lan egiten dutela zaintzea.

ANTOLAMENDUA

Proiektu bakoitza egiteko, honako urrats hauek egin beharko dira:

- Proiektuaren asmoa erabakitzea (egoera eta/edo konpondu beharreko arazoa).
- Informazioa eta dauden aukerak bilatzea.
- Burutzeko lan-plan bat egitea.
- Diseinatutako plana egikaritzea.
- Egindako lana aurkeztea edo haren berri ematea.
- Egindako lana baloratzea.

EBALUAZIOA

Prozesu osoaren ebaluazioa honako hiru elementu hauetan oinarrituta egiten da:

- irakasleak eta ikasgelako gainerakoek gaiaren taldekako aurkezpenari buruz egiten duten ebaluazioa.
- irakasleak talde bakoitzaren barruan egindako ekarpen indibidualei eta taldearen ekarpenei buruz egiten duen ebaluazioa; irakasleak, gainera, taldekideen ebaluazioa kontuan hartu beharko du, eta taldekideekin bildu beharko du.
- irakasleak proiektuari eta gaiaren inguruan sortutako materialari buruz egiten duen ebaluazioa.

Elementu horietako bakoitzean, ebaluazioan erabiliko diren arrakasta- edo bikaintasun-irizpideak zehaztu beharko dira taula batean, hau da, ebaluazioa egingo duenak (irakasleak edo ikaskideek) kalifikatzeko garaian zertan jarriko duen arreta eta, beraz, lana egiten eta aurkezten dutenek zer hartu behar duten bereziki kontuan.

GEHIAGO JAKITEKO

[ABP en Lengua con herramientas Gsuite: Juicio a Lázaro Esperientzia Arrigorriaga BHIIn](#): Ainhoa Artesanok, Idoia Rutor-ek eta Marian Calvok Gsuite Hezkuntzan topaketan aurkeztutako esperientzia, 2017, 23'

[Berta Martinez Fernando Trujilloekin, PBLaren funtsezko ideiak laburbiltzen](#), Barakaldoko Jardunaldi Pedagogikoetan, 2016, 4'

[PBL baterako arrakasta-gakoak Fernando Trujilloekin](#): planteatu erronka bat, egin lana taldean, sortu gauza berri bat, ebaluatu prozesuaren barruan, zabaldu, atera gizartera eta gozatu, 2016, 1'19"

[Fernando Trujillo, PBLari buruzko #B06jardunaldiak](#): Ikaskuntza Aktiboa eta Pedagogia Berriak egin daitezke, 2017. 23'

[Joseba Gonzalez & Marta Camoira ABP proiektua laburtzen](#) Barakaldoko Alkartu Ikastolan Josu Feijoo astronautarekin 2019 4'

[Proiektuen metodoan oinarritutako aberastea](#). Serie Informes, CNICE MEC

2. IKASLE ENBAXADOREA

Berdinen arteko tutoretzaren aldaera bat ikastetxean eta gure hezkuntza-sisteman lehen aldiz sartzen diren beste jatorri batzuetako ikasleentzat enbaxadoreak edo "ikasle gidariak" izendatzean datza.

Ikasle enbaxadorea bere ikasgelako bitartekoa eta ordezkaria izango da ikasle berrien aurrean, eta bere funtzio nagusia ikastetxean eta taldean harrera egitea izango da.

Beste eskola- eta kultura-erreferentzia batzuk dituzten **ikasle etorkinentzat**, enbaxadorearen figura errealitate berriarekiko lotura izango da: ikastetxeko lekuak ezagutzen lagunduko die (erreferentziazko ikasgela, jangela, gimnasioa, komuna eta abar), ikaskide berriekin harremanetan jartzen lagunduko die, egokitzeko dituzten zailtasunak ulertzen saiatuko da (pertsonalak eta animikoak, ulermen-arazoak...) eta abar.

EZAUGARRIAK

Garrantzitsua da lan hori egingo duen pertsona eskolako kultura-dibertsitatearen adierazgarria izatea. Interesgarria izan daiteke, halaber, iritsi berriaren hizkuntza jakitea eta harrerako gizarteko hizkuntzak ongi menderatzea.

Kasuren batean, hasiera batean kontuan hartu beharko da, agian, generoa, enbaxadorearen eta iritsi berriaren arteko harremana naturalagoa izan dadin (batzuetan, adinagatik edo kultura- eta/edo erlijio-arrazoiengatik, zaila izan daiteke sexu desberdineko pertsonen arteko hurbileko harremanak ezartzea).

Enbaxadoreak boluntarioak izango dira funtsean, baina komeni da harreran inplikaturik dagoen talde osoak, lehenago edo geroago, aldi baterako esleitutako zereginak egitea eta txandaka aritzea, autonomia bultzatzeko eta mendekotasun-harremanak saihesteko. Helburua garrantzitsua eta beharrezkoa den zeregin bat egitea eta, gainera, ongi egitea da, baina enbaxadore-lana egiteak **ez du esan nahi** nahitaez lagunak izan behar dutenik.

ANTOLAMENDUA

Ikasle enbaxadoreek egin beharreko zereginak ezin dira egin prestaketarik gabe. Horregatik, komeni da iritsi berrientzat garrantzitsuenak eta premiazkoenak diren gaiei buruzko pistak eman ditzaketen alderdiak lantzea (tutoretza-saioretan, adibidez). Lan horrek, halaber, balio batzuei buruzko gogoeta egiteko baliagarria izan behar du (hala nola enpatiari, laguntzari eta lankidetzari buruzkoa), horrekin denok ikasten baitugu.

Ikasle enbaxadoreen lana orienta dezaketen ZEREGINAK:

- Ikasle berria ikastetxea ezagutzera eramatea eta zuzendaritzara, jangelara, gimnasia edo patiora joateko bidea ikasten duela ziurtatzea.
- Iritsi berriari zerbitzuak erakustea, sinbolorik eta ikonorik garrantzitsuenak azaltzea eta ikasgelatik irten eta komunera joateko baimena eskatzen erakustea.
- Ikasgelan ikasle berriaren ondoan esertzea, eskolako errutinak betetzen laguntzea eta eskolako zereginetan dituen zailtasunak ulertzen saiatzea.
- Beharrezkoa denean irakasleari laguntza eskatzen laguntzea.
- Jangelara joaten laguntzea eta, lehen egunetan, elkarren ondoan bazkaltzera gonbidatzea.
- Jolasgaraian, ikasle berria bere taldean sartzera gonbidatzea, jokoak azaltzea eta parte hartzera bultzatzea.
- Ikasle berriak zuzendaria, irakasle tutorea, hizkuntza-indargarriko irakaslea eta abar nor diren eta nola izena duten badakiela ziurtatzea.

Gainera, komeni da enbaxadoreak egindako lana nolabait ere aitortzea. Hona hemen aitortzeko modu batzuk:

- Enbaxadore-lana egiten denean, eskola osoan ezaguna den bereizgarri bat eramatea (intsignia, pegatina eta abar).
- Gurasoei gutun bat bidaltzea eta, bertan, ikaslearen parte-hartzea eskertzea eta egindako lana, lan horrekin ikasi duena eta lanaren ondorioak azaltzea.
- Zuzendaritzak sinatutako egiaztagiria.
- Zuzendaritzak, ikastetxe osoarentzako guneko batean, egindako lana goraiatzeko iruzkinak egitea.

GEHIAGO JAKITEKO

[Harrera Plana egiteko orientabideak](#). Eusko Jaurlaritza (2004)
(55. orrialdetik aurrera)

[Lenguaje y aprendizaje en un aula multilingüe. Un enfoque práctico](#)": COELHO, E.; OLLER, J.; SERRA, J. M. (30. orrialdetik aurrera: "La orientación a los estudiantes")

3. IRAKURKETA GIDATUA

Irakurtzeko kompetentzia eta ikaskuntzarekiko motibazioa hobetzeko hainbat adinetako ikasleen arteko interakzioak eta laguntza sustatzean datza. Adin handiagoko ikasle batek adin txikiagoko beste bati aukeratutako testuak irakurtzen eta ulertzen laguntzen dio.

EZAUGARRIAK

Ikastetxe batean edo ikastetxeen artean, adin desberdinetako bikoteak antolatzen dira (zirkunstantzien arabera hirukoteak ere izan daitezke), bikoteko kideek berek aukeratutako liburuak irakurtzeko, irakasleek aholkatuta eta gainbegiratuta.

Bi ikasgeletako irakasleak saioa egiteko egunaren eta lekuaren inguruan ados jartzen dira eta saioan egoten dira. Sarritan, parte hartzen duen bikote bakoitzaren arteko konpromisoa sinatzen da.

Garrantzitsua da jarduera hori handien taldearen barruan balioekin eta laguntzarekin zerikusia duten arloei edo jakintzagaiei lotuta egotea, hala nola erlijioari edo horren alternatibari.

Parte-hartzaileek dinamikaren inguruan egindako balorazioak jasotzen dira: ikasleen interakzio eta jarduketa motak, jarrerak, portaerak, errespetua, entzuteko jarrera, parte-hartzea eta abar.



ANTOLAMENDUA

Bi ikasgelako ikasleak aurrez zehaztutako leku batean elkartzen dira. Irakasleek bikoteak antolatu eta zenbat saio egingo diren erabakitzen dute.

Liburua aukeratzen da ikasgelan edo liburutegian daudenean artean, irakasleek aholkatuta.

Saio bakoitzaren hasieran, irakasleetako batek testu labur bat irakurtzen du ozenki (aukerakoa da, baina ozenki irakurtzeko moduaren eredu bat emateko komenigarria).

Bikoteak ikasgelan banatu eta aukeratutako liburua irakurtzen hasten dira. Bikoteko kideak txandakatu egiten dira testua ozenki irakurtzeko zereginetan, eta adin handiagoko pertsonak testua ulertzen dela ziurtatzen du, hutsegite batzuk zuzentzen ditu eta abar.

Bakoitzak irakurtzeko duen gaitasunaren arabera, antzeko luzerako paragrafoak irakurtzen dituzte txandaka, edota batek besteak baino gehiago irakurtzen du, irakasleak aurrez aholkatuta. Irakasleak bikote guztiak gainbegiratzen ditu eta laguntza moldatzen du.

GEHIAGO JAKITEKO

IPI Sansomendiko etapa arteko tutoretza-proiektu bati buruzko erreportajea Cuadernos de Pedagogía aldizkarian.

<http://ipisansomendi.net/wp-content/uploads/2014/11/CUADERNOS-DE-PEDAGOGIA.pdf>

Zuk ikasten baduzu, nik hobera egingo dut:

https://www.youtube.com/watch?v=t_qCibcnjzw Apadrinamiento

[/amadrinamiento lector, cómo organizarlo](#). Miguel Loza

Bideo honetan, IPI Sansomendiko ikasleek irakurketa gidatuari, haur-hezkuntzako talde interaktiboetako boluntarioei eta laborategiko gidaritzari buruz hitz egiten dute.

Deustuko Unibertsitateak heldu batek haur batekin (normalean aurreirakurle batekin) egiten duen haurren liburu irudiztatuen irakurketa partekatuari buruz egindako proiektuaren [Bideoa](#).

4. LANKIDETZA-IKASKUNTZA

Lankidetza-ikaskuntza ikasleen talde txikien erabilera didaktikoa da, eta bidezko parte-hartzea ziurtatuko duen eta ikasleen arteko aldibereko interakzioa sustatuko duen jardueraren egitura bat erabiltzen du. Lan-taldeen osaera, oro har, heterogeneoa da errendimenduari eta gaitasunari dagokienez, baina, zenbaitetan, homogeenak ere izan daitezke. Ikasleek elkarrekin lan egiten dute beren eta taldekideen ikaskuntza maximizatzeke.

Lankidetzan oinarritutako talde-lanak ondorioak ditu parte-hartzaileen errendimendu akademikoan eta elkarren artean ezartzen diren harreman sozioafektiboetan. Gainera, estrategia egokia da ikasleek irakasleekin duten mendekotasuna murrizteko eta norberaren ikaskuntzarekiko erantzukizuna areagotzeko.

Proposatzen diren jarduera guztiek bat etorri behar dute ikasleen mailarekin. Ez da komeni talde homogeenak sortzea, ez baitituzte ikasleen itxaropenak eta autoestimua hobetzen.

Dibertsitatea eta curriculum-distantzia oso handiak direnean, heldu gehiago sartu behar dira ikasgelan taldeek behar bezala funtzionatzeko eta berdinen arteko laguntza bermatzeko. Horretarako, ikastetxean indartzeko dauden baliabideak erabil daitezke.

EZAUGARRIAK

Elkarrekiko mendekotasun positiboa: ikasleek beren taldeko gainerako kideekin duten **lotura** hauteman behar dute, beren ikaskuntzaren arrakasta gainerakoaren arrakastari lotuta dagoela argi ikus dezaten.

Erantzukizun indibiduala eta taldekoa: taldekide bakoitzak dagokion lanaren zatiaz arduratu behar du eta, aldi berean, taldeak helburuak betetzeaz arduratu behar du.

Pertsona arteko eta taldeko trebetasunak: ikasleek, eduki akademikoak ez ezik, ikaskideekin lankidetzan jarduteko beharrezkoak diren trebetasun sozialak eta pertsonalak ere ikasi behar dituzte.

Ikasleek lankidetzan-laneko prozesuen (ikasle bakoitzaren ikaskuntzen eta lorpen- edo zailtasun-zirkunstantzien zein ikasle bakoitzak gainerakoekin duen parte-hartzearen eta interakzioaren) **ebaluazioan parte-hartze aktiboa izatea** sustatu behar da.

Lankidetzeta-taldeetan, ebaluazioa

- parte-hartzean oinarritutako eta elkarrekiko interakzioko ingurune plural batean egiten da
- kompetentzia-lorpenen, lorpen pertsonalen eta taldeen lorpenen erregistroak biltzen ditu
- kompetentzia kognitiboak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak ebaluatzen ditu

ANTOLAMENDUA

Ikasgela lankidetzan oinarrituta antolatzeko kontuan hartu beharreko alderdiak

- Lankidetzeta-taldeetan egiten den lana ezagutzea
- Ikasleak taldeetan banatzea: oinarrizkoak, noizbehinkakoak, adituenak, batzarra
- Ikasgelako altzarien banaketa eta giroa
- Taldearen funtzionamendu-arauak
- Taldeen barne-antolamendua
- Taldearen plana zehaztea eta taldearen funtzionamendua aldizka berrikustea
- Ospakizunak taldeetan eta ikasgelako taldean
- Taldearen koadernoak egitea

GEHIAGO JAKITEKO

"9 ideas clave. El aprendizaje cooperativo". Pere Pujolás. Ed. Graó.

[Ikaskuntza kooperatiboaz Mogel eta San Juan ikastetxeetan](#) 2013 10'

[Ikaskuntza Kooperatiboa Mogel Isasi ikastetxean ezagutuz](#) 2013 15'

[Ikasketa Kooperatiboa Alegiko San Juan Ikastetxean](#) 2013 13'

[Ikasketa kooperatiboari buruzko II. Sinposioa](#). 2013ko ekaina

[III. Topaketa Ikasketa Kooperatiboaz](#) 2018ko ekainean (25 hitzaldi). Adibidez:

- [Evaluar la Cooperación dentro del marco de las competencias](#): Verónica Jiménez 2018
- [Elkarrekin bizitzen, elkarrekin ikasten.IK/KI eta Elkarbizitzarako kompetentzia](#): Maribi Fernández 2018
- [C eremua HHn ere IKKI" Talaia HLHI](#) (Hondarribia): Leire Larzabal 2018 16'
- [Legardan IKKI antolatzen Legarda LHI](#) (Mungia): Maite Larrañaga 2018 15'
- [Ekinaren ekinez ikaskuntza kooperatiborantz Unamuno BHI](#) (Gasteiz) Ane Lopez, Bea Urriza eta Maite Martinez 2018 19'

- [IKKI- hasi, garatu, ezarri Maristak \(Durango\)](#) Aitziber Gómez Cuesta, Hostaizka Sainz Hidalgo 2018 17'
- [IK/KI planteamendutik aniztasunari erantzutea Eredu jasangarria?](#) Astileku Ikastola (Portugalete) Susana Villar 2018 29'
- [Tailer inklusiboak Sestao PCPIan;](#) Teresa Del Hoyo 2018 11'
- [Zaila? Danok batera EZ Arratia BHI](#) (Igorre) Karmele Angoitia eta Galder Olivares 2018 22'
- [IK/KI egiturak diziplina arteko proiektu batean Tolosako Orixe BHI](#) Idurre Basterretxea & Itziar Errasti 2018 23'
- [C Eremua hobetzeko bidean @ArrigorriagaBHI-ko](#) Eugenia Grijalvo eta Manuela Virto 2018 21'

[Bizarain BHIko Josu Curiel "IKKI eta zehar-konpetentziak"](#) aurkezten 2019 10'



5. BOLUNTARIOEN LAGUNTZA IKASGELETAN ETA IKASTETXEAN

Ikasgeletan eta ikastetxean boluntarioak egotea eta laguntzea lagungarria da eskola-arrakasta lortzeko, ikastetxeetan bizikidetzak hobetzeko eta eskola inklusiboarekin bat datozen erantzunak eta esku-hartzeak ezartzeko.

Beste ekarpen batzuen artean, boluntarioek interakzioak aberasteko eta dibertsifikatzeko egiten duten ekarpena, ikasle batzuen mundua (esperientziak, kultura eta abar) ikastetxera hurbiltzeko ematen duten aukera eta irakasleei ikasleei buruz ematen dieten informazioa azpimarra ditzakegu. Halaber, laguntza handiagoa behar duten kolektiboek erantzuten ere laguntzen dute.

EZAUGARRIAK

Irakasleek jarduerak antolatzen dituzte, jarduera horien helburua boluntarioekin partekatzen dute eta jarduerak dinamizatzeko moduari edota haiengandik espero denari buruzko argibideak ematen dizkiete. Ez dituzte egin beharreko jarduerak diseinatzen eta ez dira ebaluazioaz arduratzen.

Boluntarioek aktiboki parte hartzen dute jardueretan, eta elementu dinamizatzaileak eta motibatzaileak dira ikasgelan.

Ikasteko interakzio positiboak ezartzen laguntzen dute. Boluntarioek ez dute irakaslearen lana ordeztzen.

Boluntarioek dibertsitateari erantzuteko hainbat jarduketatan parte har dezakete: talde interaktiboak, curriculum-solasaldi dialogikoak, literaturako klasiko unibertsalei buruzkoak, gidaritza, berba laguna programa eta abar.

Halaber, irakastorduetatik kanpoko jarduketetan lagun dezakete: tutoretzapeko liburutegia, irakurtzeko laguntza, hizkuntzak praktikatzeko laguntza, Bide Lagunarekin lankidetzan jardutea eta abar.

Ikasleak ebaluatzeko lana irakasleei dagokie, baina boluntarioek iritzi eta informazio interesgarrien ekarpena egin dezakete.

ANTOLAMENDUA

Boluntarioek ikasgeletan eta ikastetxean denbora jakin bat emateko konpromisoa hartzen dute. Konpromisoak aldakorrak dira, baina bi aldeek ongi ezarrita utzi behar dituzte eta, jakina, bete egin behar dituzte.


Boluntarioak ikasgeletan sartu aurretik, prestakuntza ematen zaie eta funtzionamenduaren eta konfidentzialtasunaren inguruko akordioak lortzen dira.

Ikastetxe askotan, kontratu etiko-pedagogiko moduko bat sinatzen da, eta, bertan, esku-hartzeak, horiek egiteko moduak, irakasleekiko harremana, konfidentzialtasuna eta abar jasotzen dira; hau da, ikastetxeak eta boluntarioek elkarrengandik espero dutena islatzen da (konpromisoa).

GEHIAGO JAKITEKO

[*La participación de personas adultas en las aulas.*](#) (Aula Infantil, 59 zk.)

Escuela aldizkaria, ikas komunitateei buruzko monografikoa, 7 zk. 2013ko apirila.



6. KONTRATU PEDAGOGIKOAK

"Kontratu-pedagogia **akordio negoziatu** bati lotutako ikaskuntza-egoerak antolatzen dituen da. Akordio horren aurretik, elkarrizketa bat dago elkarren solaskidetzat hartzen duten pertsonen artean, helburu kognitibo, helburu metodologiko edo portaera-helburu bat lortzeko" (Przesmycki, 2000).

Lan-planen aldaeratzat har daiteke, eta baliagarria izan daiteke baliabide gisa beste estrategia batzuetan: tutoretza pertsonalizatuak eta abar.

EZAUGARRIAK

Kontratuak ikasleekin –eta haien familiekin, bidezkotzat hartzen denean– denbora jakin batean egin beharreko lana negoziatzeko eta hartutako konpromisoak idatziz jasotzeko aukera ematen du.

Kontratuarekin arrakasta lortzeko baldintzak:

- elkarren arteko onarpena eta erabakitzeko askatasuna
- kontratuaren elementuen negoziazioa
- konpromisoen jarraipena

Kontratu pedagogiko batean, honako hauek argi eta garbi jaso behar dira idatziz:


- parte hartzen duen alde bakoitzak zer konpromiso hartzen duen
- espero den azken emaitza, kontratuaren helburua izango dena
- eskuragarri dauden baliabideak eta betetzeko aurreikusitako programa
- azken emaitza eta bitarteko emaitzak
- kontratuaren arrakastaren ebaluazioa, helbururako ezarritako lorpen-adierazleetan oinarrituta

Lortu nahi diren helburuen eta inplikaturako eragileen arabera, honako kontratu hauek daude:

- errekupezio-kontratuak: banakako negoziazioa
- gatazkak konpontzeko kontratuak: banakakoa, taldekoa edo ikasgelakoa
- proiektu-kontratua: banakakoa edo taldekoa
- ebaluazio-kontratua: banakakoa
- ikasgelako kontratu kolektiboa: ikasgelarako ezartzen da, eta, ondoren, kide bakoitzak bakarka idazten du bere kontratua

GEHIAGO JAKITEKO

- Escuela aldizkaria, ikas komunitateei buruzko monografikoa, 6 zk. 2013ko martxo.
- "La pedagogía del contrato. El contrato pedagógico en la educación". Halina Przesmycki. Ed. Graó.
- http://www.slideshare.net/nicomdq/contrato-didactico?qid=eee69d65-d03e-42a5-9779-8b865889a478&v=default&b=&from_search=1



7. BI IRAKASLEREN BATERAKO JARDUKETA IKASGELAN

Talde heterogeneoetan egiteko lan-proposamen bat da. Proposamen horretan, baliabide pertsonalak erabiltzen dira, ikasle guztiek ikaskuntza instrumentalean maila handiagoa lortzeko. Bi irakaslek batera lan egiten dute, dibertsitateari eman beharreko erantzunean eraginkorrak diren metodologiaren eta ikasgelako ikasle guztien arretaren bitartez berdinen arteko ikaskuntza sustatzeko.

Irakasleek, aldeztu aurretik, honako alderdi hauek adostu behar dituzte: ikasleen artean eta irakasleekin interakzio gehiago sortzeko baterako ekintza nola egingo duten, erabiliko duten metodologia, egingo dituzten zereginak eta jarduerak, espazioaren antolaketa, erabakitzen diren taldeen heterogeneotasuna bermatzeko irizpideak eta rolen banaketa (ikasgelaren kudeaketan eta ikasleen testuinguruaren arabera premiei eman beharreko erantzunetan).

EZAUGARRIAK

Ikasgelako taldean egin beharreko zereginak planteatzen dira, ibilbide paraleloen kalitate txikiagoa eta bereizketa saihestuz.

Planteatzen diren jarduerak interakzioaren eta baterako lanaren bidez egiten dira. Horren helburua ikasleen arteko elkarrizketa eta laguntza-interakzioak sustatzea eta, horren bidez, ikasteko aukerak ugaltzea da.

Hainbat motatako taldeak erabiltzen dira. Denak heterogeneoak dira, eta ikasgelako irakasleek gidatzen eta dinamizatzen dituzte. Irakasle bakoitzak bere estrategia eta interakzio-modu propioak erabiltzen ditu, eta, era horretan, hobeto erantzuten zaio ikasgelako dibertsitateari.

Ikasgelan, lan jarraituko giro bat sortzen da, aztertzen ari diren gaia ulertzen laguntzeko estrategiak eskaintzen dira eta ikasleek atzean geratzen direnak taldean jasotzeko aukera sustatzen da; era horretan, gainerakoek hainbat modutan azaltzen dituzte gauzak berriz.

Halaber, ikasgelako lankidetzaren eta elkarrekiko laguntzaren dinamikaren barruan ikasle jakin bati laguntza espezifikoak ematea ahalbidetzen da.

Ez diogu erreparatzen edozein arrazoi dela eta egiten ez duenari, egiten ez duenak egiteari, ulertzeari, egingo duenari eta hori egiteko antolatze moduari baizik.

Saio horiek taldekako lan-estrategiak sustatzeko erabiliko dira, eta azalpen magistralak gutxiagotuko dira. Irakasleek arazoak eta jarduna aztertzen laguntzen dute. Jarduna hobetzeko bi ikuspuntu desberdin dira.

ANTOLAMENDUA

Ikastetxeko ordutegiaren antolaketan elkarrekin esku hartzeko aukera eman behar da beti.

Zereginen antolaketa, irakasle bakoitzaren rola, ikasleen antolaketa eta denborak desberdinak izango dira zereginaren helburuaren eta ikasgela partekatzen duten irakasleen tipologiaren arabera.

Arlo edo jakintzagai desberdineko bi irakaslek diziplinarteko proposamenak egiteko aukera planteatu dezakete. Arlo edo jakintzagai bereko irakasleek ikasleen parte-hartzea sustatzen duten proposamenetan helduek gidatzeko aukera ematen dute, eta azaltzeko eta gidatzeko modu desberdinak ahalbidetzen dituzte. Bi kasuetan, irakasleak koordinatzeko uneak aurreikusitako behar dira, eta denbora eta espazio komunak baliatu behar dituzte zer zeregin egingo diren, zer material erabiliko diren, taldeetan txandakatu diren, denbora nola kudeatuko den edota egindakoa nork eta nola ebaluatuko duen erabakitzeko. Irakasle espezialistek edo arlo desberdin bateko irakasleek laguntzaile gisa parte hartzeko aukerak koordinazio txikiagoa behar du, irakasle horien laguntza talde osoarentzat onuragarria izatea ahalbidetzen du eta balio handiko laguntza da ikasgelako irakaslearentzat.

Ikasgela antolatzeko aukera asko daude. Irakasleek gainbegiratuko dituzten talde finkoetan antola daitezke edota taldeak eta zereginak saio berean txandaka daitezke. Jarduerak planteatzen direnean, irakasle bakoitza jardura batez arduratu daitezke, txandakatzeko jardura horiek egingo dituzten taldeak kontuan hartuta. Beharrezkoa den helduen gidaritzaren arabera, ikasleak bakarrik dauden taldeak eta beti irakasleetako bat duten taldeak konbina daitezke. Horretarako, beharrezkoa izango da taldeak heterogeneoak izatea, elkarrekiko laguntza eta askotariko azalpenak susta daitezkeen.

DIBERTSITATEARI EMAN BEHARREKO ERANTZUNA

Ikasgelan bi irakaslek lankidetzan jarduteak arreta hobea eskaintzeko, feedback handiagoa emateko eta erakusteko/azaltzeko estrategia gehiago erabiltzeko aukera ematen du. Bigarren pertsonak garbi geratzen ari ez den gauza bat azaltzeko esku har dezake eta bere estrategiak erabili ditzake adibideekin, nola egingo lukeen azalduz eta abar. Era horretan, dibertsitatearen ekarpena egingo du. Rolak aldatu egin daitezke. Hainbat estrategia bateratzeak lantzen ari direna hainbat modutan ikusteko aukera emango die ikasleei.

Bestalde, horrek guztiak ikasleen motibazioa sendotzen du (lehenago laguntzen zaielako), egiten duten ekarpena jasotzea errazten du (atzeko planoan entzutea), eta ikasle batzuk non galtzen diren ikusten, gaiak edo terminoak argitzeko eskola eteten eta ikasleak birkokatzen laguntzen du. Itxaropenak handiagotu egiten dira hobetzeko aldaketak sartzen direnetik.

Ikasle guztiek lankidetza-taldeen antolaketan kalitateko parte-hartzea izaten laguntzen du, eta hobeto gauzatzen du taldeen tutoretza proiektuen metodologian. Halaber, IKTen erabileran lankidetza eta elkarrizketa sustatzen laguntzen du, pentsamendu sortzaileagoa sustatzeko.

Edozein metodologiatan berdinen arteko ikaskuntza-estrategiak ikasle gehiagok baliatu ahal izan ditzaten, bereziki dibertsitate handia dagoenean, estrategia horiek bizkortzeari begira erabili behar dira, itxaropen handiei eutsi behar zaie, erronka kognitiboak eskaini behar dira, pentsatzeko denbora eman behar da, eta aukera gehiago sortu behar dira argudiaketa, gogoeta eta elkarrekiko laguntza sustatuko duten interakzioak sortzeko.

GEHIAGO JAKITEKO

Bi irakasle gelan Abadiñoko Zelaieta eskolan: esperientziaren analisia 2013 8'

Kalitate jardunaldian aurkeztutako bideoa: Lekeitio BHIn bi irakaslegelan 2013 12'

Bi irakasle gela berean esperientzia Kalitate jardunaldietarako konparaketa Abadiñon eta Lekeition 2013 10'

Jardunbide inklusiboak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Adarra.

Hezkuntza inklusiboa. Berdinak dibertsitatean: irakaskuntza partekatua.

Irakasleen prestakuntza (ITE). 9. modulua.

8. TALDE INTERAKTIBOAK

Interakzioetan eta talde-lanean oinarritutako estrategia metodologiko bat da. Irakasleak talde heterogeneoetan antolatzen du ikasgela, eta talde adina jarduera antolatzen ditu. Halaber, jarduera adina heldu ditu, eta heldu bakoitza jarduera bat dinamizatzeaz arduratzen da. Pertsona horiek honako hauek izan daitezke: beste irakasle bat, beste esparru bateko profesional bat, senide bat, boluntario bat eta abar. Saioaren barruan, ikasle taldeak txandaka aritzen dira jarduera batetik bestera.

Jarduerak diseinatzeaz eta saioa kudeatzeaz arduratutako pertsona irakaslea da. Gainerako helduak (ahal bada jatorri desberdinekoak) beren taldea dinamizatzeaz arduratzen dira, ikasleek planteatu zaizkien jarduerak elkarri lagunduz egin ditzaten.

Konpetentzia instrumentalak lantzen diren aldi berean, elkartasuna eta errespetua lantzen dira eta bizikidetzeta hobetzen da.

EZAUGARRIAK

Funtsa berdinen arteko zein beste heldu batzuekiko interakzioa eta laguntza da. Ezinbestekoa da ikasle taldeak heterogeneoak izatea.

Irakasleak jarduerak, horiek egiteko dinamika, zuzentzeko unea eta abar erabakitzen ditu. Ikasgelako taldeak adina jarduera antolatzen ditu. Jarduerak desberdinak badira ere, helburu komunak sustatzen dituzte. Ikasgelan normalean erabiltzen diren jarduerak dira egokienak saio horietarako.

Boluntarioek jarduerak dinamizatzen dituzte, interakzioa, laguntza eta argudiaketa sustatzen dute, parte hartzera animatzen dute, taldean zer gertatzen den behatzen dute eta irakasleari informazioa helarazten diote.

Boluntarioak honako hauek izan daitezke: senideak, komunitatean dauden kulturetako pertsonak, ikasle ohiak, goragoko mailetako edo unibertsitateko ikasleak, hainbat motatako irakasleak, eragile soziokomunitarioak eta, azken batean, interakzioak dibertsifikatzen eta aberasten dituzten eta ikasleen motibazioa handiagotzen laguntzen duten profil desberdineko dinamizatzailleak.

Ikasle aktiboek ikasi eta irakatsi egiten dute, ez dute alde zuzenetik finkatutako rolik eta, era horretan, denek ikasten dute. Azaltzen duenak ikasi egiten du, denok ikasten baitugu hobeto zerbait azaltzen dugunean. Eta entzuten duenak ere ikasi egiten du, hobeto ikasten baita ikasi berri duen norbaitengandik, are gehiago trikimailu eta estrategia desberdinak ekartzen dituzten pertsona desberdinak badira. Taldearen heterogeneotasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gehiago ikasten da. Oinarritzko tresnak elkarrizketa, gogoeta eta argudiaketa dira, eta heldua hori gauzatzeaz arduratzen da, batzuek besteei zer jarri behar duten esan gabe.

Saioa nola joan den baloratzeko, taldeak dinamizatzen dituzten helduek honako hauek behatzen dituzte: interakzio mota, ikasleen jarduketak, jarrerak, portaerak, zeregina amaitu den, inork amaitu ez duen eta zergatik... eta guztia irakasleari helarazten diote. Irakasleak, aldi berean, jarduerak nola funtzionatzen duten, dinamizazioa nola egiten den, jarduerak diseinatzean ikasle guztiak parte hartzeko beste zerbait pentsatu behar duen eta abar behatzen du.

Halaber, ikasleen balorazioak jasotzen dira.

ANTOLAMENDUA

Ikasgela 4-6 pertsonako talde heterogeneoetan banatzen da.

Heldu bat talde bakoitzean. Taldeak adina jarduera diseinatzen dira. Jardueren iraupena saioaren iraupen osoa jarduera kopuruarekin zatitzean lortzen dena da. Adibidez, 4 talde badira, 15-30 minutuko 4 jarduera diseinatzen dira, adinen eta saioaren iraupenaren arabera. Heldu bakoitza jarduera beraz arduratzen da saio osoan, eta ikasle taldeak jarduera batetik bestera igarotzen dira.

Egokiena irakaslea zer gertatzen den ikusteko edo edonoiz laguntzeko libre egotea da. Izan ere, taldeak dinamizatzen dituzten pertsonen zeregina ez da azaltzea, lankidetzak, parte-hartzea eta berdinen arteko ikaskuntza sustatzea baizik.

Irakasleek jakintzagai berean lantzen diren konpetentzien arabera diseinatzen dituzte jarduerak. Adibidez, matematikan, talde batean problemak landu daitezke, beste talde batean kalkulua, beste batean logika eta abar. Hizkuntzen kasuan, berriz, talde batean irakurketa, beste batean idazketa, beste batean gramatika eta abar landu daitezke.

Egokiena da irakasleak ikasleek bakarka edo taldean lan egiteko erabili ohi dituen jarduera mota berak erabiltzea. Dinamika ongi menderatu arte, ez da komeni aurrez erabili gabeko jarduerak erabiltzea. Jarduera berriak sartu nahi direnean, talde batekin hasi beharko da. Nolanahi ere, garrantzitsua da taldeen jarduerak (edo haietako batzuk) eta ikasgelako ohiko jarduerak lotuta egotea.

Jarduerak ikasleek ofizialki duten curriculum-mailakoak izan behar dute. Curriculum-desoreka dagoenean, jarduerak egiteko beharrezkoak diren laguntzak diseinatu eta emango dira.

GEHIAGO JAKITEKO

Ikas Komunitateetarako esteka:

<https://ikaskom.wikispaces.com/GRUPOS+INTERACTIVOS>

Artikuluak:

Escuela aldizkaria, ikas komunitateei buruzko monografikoa, 1 zk. 2011ko urria.

Cuadernos de Pedagogía. 429 zk. "Grupos interactivos: heterogeneidad y optimización de recursos". 34-36. or.

Bideoak:

[Ania Ballesteros hurraren hitzaldia](#) Europako Kontseiluan

[Talde interaktiboen jardunbidea](#) Ceutako Santa Elena ikastetxean (Haur Hezkuntza)

Ramón Flecharen azalpen baten [grabazioa](#)



9. BIKOTEKA IRAKURTZEN (LEEMOS EN PAREJA)

Berdinen arteko tutoretzan oinarritutako hezkuntza-programa bat da. Ikasleen bikoteak ezartzen dira, harreman asimetriko, finko edo elkarrekiko batekin eta helburu berarekin, hots, irakurtzeko konpetentzia hobetzeko helburuarekin.

Tutore gisa esku hartzen duten ikasleek hobera egiten dute, irakastea ikasteko era egokia delako, eta tutoretzapeko ikasleek ere bai, ikaskide tutorearen laguntza egokia eta etengabea jasotzen dutelako. Programak ikasleen arteko tutoretza eta familia-tutoretza konbinatzen ditu.

EZAUGARRIAK

Programak kontzeptuzko hiru funts ditu:

- **berdinen arteko tutoretza**; ikasle bikoteak, helburu komun, ezagun eta partekatu batekin: oso egituratuta dauden jardueren bidez irakurritzko ulermena hobetzea, irakasleak planifikatutako harreman-esparru batean.
- **familiak etxean irakurtzeko ematen duen laguntza**, interakzio-egitura baten erabileran prestatu ondoren. Horretarako, eskolako oinarritzko konpetentziak seme-alabekin ikasteko aukera ematen duten material espezifikoak erabiltzen dira.
- **irakurritzko ulermenerako** benetako egoerak sortzea, PISAren tankerakoak, testu errealak aurkeztuta.
Testu horiek jarduera-orriak lantzeko ezarritako irizpideei jarraikiz hautatzen dira.

Programa horretan sartuta dauden ikastetxeen sareari esker, saio presentzialak eta koordinazio birtuala konbinatu, beharrezkoak diren materialak erabili, esperientziak elkarri jakinarazi eta zalantzak argitu daitezke.

Ikasleen aurrerapenaren ebaluazioa egiteko, hainbat iturritako informazioa hartzen da kontuan. Hona hemen iturri horiek:

- Hasierako ebaluazioa:
programaren hasieran, hizkuntza-konpetentzian duten benetako mailaren inguruko proba bat egiten dute ikasle guztiek.
- Bikotekako autoebaluazio-jarraibidearen jarraipena
- Bikoteen behaketak, behaketen erregistroaren bidez
- Ikasle tutoreek egindako jarduera-orriak
- Ikasleen ikaskuntzaren paper-zorroa edo karpeta

ANTOLAMENDUA

1. Hasierako ebaluazioa egitea eta bikoteak sortzea, bi formularen bidez:
 - Tutoretza finkoa, hainbat mailatako ikasleekin (cross age tutoring).
 - Elkarrekiko tutoretza, antzeko konpetentzia-maila duten ikasleekin.
2. Ikasleen eta familien aldez aurreko prestakuntza.
3. Irakurketa-saio bakoitzeko jarduerak (30 minutuko saioak)
 - a. Irakurketaren aurreko jarduerak
 - b. Bikotekako irakurketa: tutorea ➤ bikotea ➤ tutoretzapekoa, GPS (gelditu, pista eman, saritu)
 - c. Testua ulertzeko jarduerak
4. Bikotearen autoebaluazioa:

Hamabostean behin, bikoteak bere aurrerapena baloratzen du, "autoebaluazio-jarraibidearen" laguntzarekin.
5. Errutina eteteko eta saioak aberasteko aukera ematen duten jarduera osagarriak.

GEHIAGO JAKITEKO

[Bideoa](#): David Durán, Vanessa Valdebenito eta Marta Flores. UAB 2010 Kueto eskolaren Youtubeko kanalean 16'

Ordiziako Berritzeguneak eta Berritzegune Nagusiak elkarlanean egindako bideoa metodologia honen proposamena eta praktika azaltzeko 20'

[Bideoa](#): Bikoteka Irakurtzen 2013-2014 Larrea 9'

[Leemos en pareja. Un programa de tutoría entre iguales, con alumnado y familias, para la mejora de la comprensión lectora.](#) Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Hezkuntza Zientzien Institutuko Berdinen arteko Ikaskuntzari buruzko Ikerketa Taldearen dokumentua, David Duran Gisbert doktoreak koordinatua.

10. GIDARITZA

Gidaritza (*mentoring*) ikastetxeko, hezkuntza-komunitateko edo unibertsitateko pertsona (gidari) batek egiten duen eta ikasle baten garapen pertsonala eta akademikoa bultzatzen duen tutoretza-lana da.

Gidaria erreferentziatzko figura bat da, eta adimen-gaitasun handiak dituzten zein arazo edo gabeziaren bat duten hurrei eta gazteei laguntzeko ekimenak, programak eta ikerketak babesten eta sustatzen ditu.

EZAUGARRIAK

Mentoring-prozesuak erabateko konfiantzazko harreman bat behar du konfidentzialtasun-giro batean. Abiapuntua ikasleen motibazioa eta interesa edo haien kezkek dira.

Gidariak bultzatzaile, eredu eta babes psikosozial gisa dihardu, galderaren metodoa erabiltzen du pentsatzen eta hausnartzen laguntzeko, bere esperientzia helarazten du eta bere baliabideak eskaintzen ditu.

Ikasleak, bestalde, era aktiboan eta autonomoan ikasten du, eta edukiak, baliabideak, trebetasunak eta abar neurri handiagoan sakontzen dituzten ikaskuntzak egiten ditu.

ANTOLAMENDUA

Ikastetxeak erabakitzen du nork egingo dituen gidari-lanak eta zer ikasle hartuko diren tutoretzapean. Ikasleen lehentasunak, kideetasunak eta abar hartzen dira kontuan, eta harremanetan jartzen dira, elkar ezagut dezaten eta akordioetara irits daitezten.

Gidariak bidezko informazioa emango du eta ongi egindakoei eta zailtasunei buruzko gogoeta bultzatuko duten eredu zehatzak eskainiko ditu lana gidatzeko. Halaber, beren trebetasunak beren kabuz garatzeko tresnak jarriko ditu ikasleen esku.

Ikastetxeek komunitateari eska diezaiokete horrelako jardueretan borondatez parte hartzeko. Halaber, "anaia/arreba/neba/ahizpa zaharra" erabil daiteke (ikasleak gidari edo eredu izango dituzten beste batzuekin jartzen dira harremanetan), edota "amabitxia-aitabitxia" (zeregin/curriculum-arlo/proiekturen batean laguntzeko).

GEHIAGO JAKITEKO

AEBetan eta Kanadan, ildo horretako jarduera ugari daude. Horietako bat "[Cybermentor](#)" izeneko da, Albertako (Kanada) Unibertsitateak 11-18 urteko nesKentzat sortua. Programaren bidez, zientzietako, matematikako, ingeniartzako edo teknologiko karrerak hautatu dituzten neskak eta emakumeak jartzen dira harremanetan, haien lanbide-ibilbidea eta ibilbide pertsonala errazteko.

MENTORAC-UMA (Malagako Unibertsitatea). Unibertsitate-gidaritzen programa pilotu bat gaitasun handiko ikasleentzat.

[La educación de los alumnos superdotados en la nueva sociedad de la información.](#)

Serie Informes. CNICE



11. SIOP EREDUA

Sheltered Instruction Observation Protocol (SIOP) protokolo bat da, eta ikusi denez eskola-edukiak ulergarriagoak izateko arrakastatsuak diren **estrategia didaktikoen multzo** batean datza.

Ikasleen hizkuntza-premietan eta premia akademikoetan oinarrituta (**eskolako hizkuntza eta familiako hizkuntza desberdinak diren** kasuetan bereziki), **edukiak ulertzea eta, aldi berean, hizkuntza-kompetentzia garatzea** ahalbidetzen duten hainbat estrategia eta teknika proposatzen dira.

Helburu nagusia: eskolako testuak **ulergarri egitea** eta, horretarako, **edukiak eta hizkuntza aldi berean** lantzea. Asmoa eskola-edukiak ikasleen **hizkuntza-mailara hurbilduta** "aurkeztea" da, curriculum sinplifikatu behar izan gabe.

Oinarri teorikoa: **hizkuntza** komunikazio-testuinguruetan **garatzen da**, interakzioaren eta erabilera esanguratsuaren bidez. Beraz, edukiak eskuratzeko funtsezko tresna izateaz gain, **eskola-edukiak berak erabiltzearen bidez** garatzen eta aberasten da hizkuntza-tresna.

EZAUGARRIAK

Guztira, aldazio moduko **hogeita hamar adierazle** edo estrategia proposatzen dira **edukiak ulergarriagoak izan daitezten** (ikusizko baliabideak, multimedia-baliabideak, antolagailu grafikoak, material manipulagarriak eta bizitza errealeko objektuak, asmakizunak, talde-lana, ikasleen hizkuntzen erabilera eta abar), eta edukiak ikasleen alde aurreko ezagutzekin eta esperientziekin lotzea bilatzen da, ikasgelan erabilitako hizkera eta hiztegia azpimarratuta.

ANTOLAMENDUA

SIOP ereduak hezkuntza-jarduna diseinatzen eta planifikatzen laguntzen duten **zortzi kategoria** edo ataletan banatzen ditu adierazleak:

- Sekuentzia didaktikoa prestatzea
- Aldez aurreko jakintzak aktibatzea (beste hizkuntza batean "erdi ezkutuan" egon daitezke) edota jakintza berriarekin lotzearen bidez sortzea.
- Input ulergarria
- Ikasteko estrategiak
- Interakzioa
- Aplikazio praktikoa
- Prozesuaren kontrola
- Berrikuspena/ebaluazioa

DIBERTSITATEARI EMAN BEHARREKO ERANTZUNA

SIOP protokoloak askotariko estrategiak erabiltzen ditu "inputa" ulergarria izan dadin, hau da, eskola-zereginetara iristeko tresna -idatzizko hizkuntza eta ahozko hizkuntza- Garapen Hurbileko Eremuan egon dadin. Era horretan, arreta hizkuntza-ikaskuntzaren progresioari ere jarri ahal izango zaio, arlo guztietako edukiak erabilia.

Estrategia egokiagoak erabiltzeari esker, interakzioa areagotu daiteke -eta, era horretan, ahozko hizkuntza landu-, eta ikasle etorkinak dituzten gizarte-ingurune babesgabeetan curriculuma eskuratzeko aukera handiagoak ager daitezke. Askotan, hasiera batean ikusi ezin izan ditugun konpetentzia asko aurkitzen ditugu ikasleengan.

Horregatik, hain zuzen ere, motibazioari eta itxaropen handiei eutsi dakieke, batez ere oraindik eskolako hizkuntza eskuratzeko eta ikasten ari diren ikasleen kasuan, era horretan ikasgelako zereginetan era normalizatu batean parte hartzeko aukera ematen baitzaie.

Eredu horren perbertsio bat testuak sinplifikatzeko teknikak baino ez erabiltzea izango litzateke, "edukia ikasleen mailara jaisteko" helburu bakarrarekin.

GEHIAGO JAKITEKO

<http://siop.pearson.com/about-siop/>

<https://sites.google.com/site/hizkuntzaetaedukiak/>

<http://www.equitanilla.com/documentos/entre-palabras-y-voces/>

<http://aulaintercultural.org/2008/10/04/el-modelo-siop/>

http://es.wikipedia.org/wiki/Sheltered_Instruction_Observation_Protocol

<https://drive.google.com/file/d/0BwsZ6fDkxmUa3JnTXFNemhPQ0E/view>

12. LITERATURA-SOLASALDI DIALOGIKOAK

Gizakien literatura-sorkuntzarik onenei buruzko elkarrizketaren bidez esanahia eta jakintza kolektiboki eraikitzean dautza. Solasaldien funtzionamendua ikaskuntza dialogikoaren printzipioetan oinarrituta dago.

Literatura-solasaldi dialogikoen bidez, ikasleak –adinean, generoan, kulturen edo gaitasunetan oinarritutako bereizketarik gabe– kultura klasiko unibertsalera eta gizakien literatura-ekarpenik onenetara hurbildu nahi dira zuzenean.

Ikasleek, irakasleak eta gainerako parte-hartzaileek (senideek eta komunitateko beste eragile batzuek ere parte har dezakete) sistematikoki egiten dituzte literatura klasiko unibertsaleko liburu bati buruzko solasaldiak.

Halaber, irakasleen eta senideen solasaldiak egiten dira literatura klasiko unibertsaleko liburu bati buruz hitz egiteko.

EZAUGARRIAK

Solasaldian, parte-hartzaile bakoitzak gustatu zaizkiolako, bat datorrelako (ala ez), gauza berezi batengatik deigarri gertatu zaizkiolako edota gogoetaren bat sorrarazi diotelako aldeztatik hautatu dituen obraren ideiei eta paragrafoei buruz hitz egiten da parte-hartzaile guztien artean. Horrek sortzen duen elkartrukea oso aberasgarria da, gaiak neurri handiagoan sakontzeko aukera ematen du eta jakintza berrien eraikuntza eta balioei eta gatazkei buruzko gogoeta sustatzen ditu.

Klasikoak aukeratu izanaren arrazoia zera da, obra horiek pertsonen bizitzaren alderdirik funtsezkoenak lantzen dituztela (horregatik iraun dute denboran), literatura-kalitatea bermatzen dutela eta literatura klasikoa gizarte-talde jakin batzuen ondareztat hartu duten kultura-hesi elitistak apurtzen dituztela. Era horretan, demokratizatu egiten da kulturarako sarbidea pertsona guztientzat.

Frogatuta geratu denez, literatura-solasaldi dialogikoen bidez ikasleen hiztegia zabaldu egiten da eta ahozko adierazpena, idazketa eta irakurrizko ulermena hobetu egiten dira. Literatura-solasaldi dialogikoei esker, halaber, ikasleek beren aukeren inguruan dituzten itxaropenak handiagotu egiten dira eta inguruneak ere beste era batean hautematen ditu ikasleak.

Solasaldia ez da beste pertsona batzuk konbentzitzeko helburu hertsiarekin egiten den eztabaida bat. Aitzitik, gogoetak elkarri adierazteko egiten da, argudioak izan daitezen ikuspuntua aldatzera eramango duen gogoeta bat eragin dezaketenak (edo ez).

Literatura-solasaldi dialogikoa errespetuan eta berdintasunezko entzuketan oinarritutako jarduna da, pertsonen testuingurua eraldatzen du eta zentzua sortzen du.

ANTOLAMENDUA

Ikasgelan zer liburu (liburu klasikoa eta, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, klasikoen egokitzapen on bat), zer saiotan eta zer maiztasunarekin irakurriko den erabakitzen da.

Saio batetik bestera irakurri beharreko kantitatea adosten da ikasleekin.

Komeni da literatura-solasaldi dialogikoak sistematizatzea. Astean behin egitea proposatzen da.

Solasaldia egiteko, honako konpromiso hauek hartu behar dira:

- Liburua ekartzea
- Adostutako orrialdeak irakurri izana
- Gutxienez pasarte bat markatzea

Irakasleak, bestalde, testua irakurtzeko edo lortzeko zailtasunak dituzten ikasleek irakurtzeko eta solasaldian parte hartzeko beharrezkoak diren alde zuzeneko laguntzak antolatzen ditu.

Saioan, moderatzaileak –irakasleak, normalean– solasaldia dinamizatzeko funtzioa betetzen du, eta hitza emateaz arduratzen da, hitz egiteko txanda bakoitza zorrotz errespetatzen den giro batean. Moderatzailearen helburu nagusia ikasgelan interakzioak bultzatzea da, parte-hartzaile bakoitzaren gogoetak sor daitezen.

Bere funtzioa ez da obra azaltzea, literatura-kritikan diharduten pertsonak aztertzen duten bezala (horretarako beste une batzuk daude ikasgelan). Aitzitik, oso garrantzitsua da ikasleek beren interpretazioa egitea. Moderatzaileak, beraz, ikaskuntza dialogikoaren printzipioak hartu behar ditu kontuan; solasaldian parte hartzen duen pertsona bat da, besteek bezala bere pasarteekin parte hartzen duena eta bere argudioak azaltzen dituena.

Ikasleek aukeratutako pasarte ozenki irakurtzean nahasten direnean edo gaizki irakurtzen dutenean, komeni da ez zuzentzea, horrek ez baitu laguntzen parte hartzen jarrai dezan. Irakasleek beste une batzuk dituzte zailtasun hori gainditzen laguntzeko.

Solasaldi-saioan, aukeratutako paragrafoak adierazten dira. Irakasleak hitza ematen die ikasleei. Ikasle bakoitzak aukeratutako paragrafoa non dagoen jakinarazten die gainerakoei, orrialdea eta kokapena (paragrafoa, lerroa, zutabea eta abar) adierazita. Ondoren, ozenki irakurtzen du testua, eta pasarte hori zergatik aukeratu duen adierazten du.

Hitza duen pertsonak ozenki irakurtzen du aukeratutako paragrafoa, zergatik aukeratu duen azaltzen du, aurkeztutako ideiei buruz hitz egiten da, eta gauza bera egiten da paragrafo guztiekin.

13. CURRICULUM-SOLASALDI DIALOGIKOAK

Curriculum-solasaldietan, irakasleak ikasleei jakintzak helarazi ordez, ikasgelan sortzen diren interakzioen bidez ikasten dute ikasleek. Horretarako, testuliburua, saiakuntza-liburua edo erabiltzen den materiala baliatzen da, oinarri zientifikoarekin. Solasaldi dialogikoen erabileraren gakoa pertsona bakoitzak ikasteko dituen edo erabiltzen dituen estrategien bidez ikasle guztiek ikasten dutela bermatzea da. Estrategia horiek ikasgelako kideen zerbitzura jartzen dira.

EZAUGARRIAK

Elkarrizketaren, jakintzagaiaren ezagutzaren eta ikasleek jakintzagai jakin bati buruz erabiltzen duen argudiaketaren bidez ikasten da. Hitz egiten duten aldi guztietan, baliozko argudioekin azaldu eta argudiatu behar dute. Era horretan, jakintzagaiari buruzko ezagutzak ez ezik, hizkuntza-konpetentzia ere nabarmen hobetzen da. Ikasleek gainerako pertsonen aurrean hitz egiten eta beste pertsona batzuei entzuten ikasten dute, eta jakintzagaiari buruz dakitena edo horren inguruan eskuratzen dituzten ezagutzak konparatzen dituzte. Parte-hartzean oinarritutako dinamika horrek aberastu eta bizkortu egiten du ikaskuntza.

ANTOLAMENDUA

Irakasleak datorren saiorako gaiaren zenbat orrialde (edo gai osoa) irakurri behar dituzten erabakitzen du. Halaber, paragrafo batzuk azpimarratu behar dituztela adierazten die, eta azpimarratu beharreko paragrafoaren aukeraketa errazteko hainbat aukera ematen dizkie:

- Pasarte, ideia edo kontzeptu bat, ulertzen ez duelako.
- Pasarte, ideia edo kontzeptu bat, ulertzen duelako, beste une batean ikasi zuelako edota irakasgai beraren barruan beste gauza edo irakasgai batzuekin lotzen duelako.
- Pasarte, ideia edo kontzeptu bat, deigarri gertatu zaiolako.

Solasaldi-saioan, aukeratutako paragrafoak adierazten dira. Irakasleak hitza ematen die ikasleei. Ikasle bakoitzak aukeratutako paragrafoa non dagoen jakinarazten die gainerakoei, orrialdea eta kokapena (paragrafoa, lerroa, zutabea eta abar) adierazita. Ondoren, ozenki irakurtzen du testua, eta pasarte hori zergatik aukeratu duen adierazten du.

- Irakasleak pasarte jakin bat ulertzen ez duelako azpimarratu badu, irakasleak azaltzeko eskatzen die gainerako ikasleei, eta gainerako ikasleek erabiltzen dituzten estrategien bidez, ikasleak pasartea uler dezake azkenean. Irakasleak informazioa osa dezake, eta, zenbaitetan, informazioa beste uneren batean osatzeko estrategiak eskain ditzake (Interneten bilatzea eta abar). Irakasleek ikaskuntza bermatu behar dute. Hortaz, kontzeptuak garbi geratzen ez direnean, beren estrategia propioekin azalduko dute ulertzen ez den kontzeptua.
- Irakasleak ulertu badu, zer ulertu duen azaltzen du, eta, ondoren, irakasleak ziurtatu behar du gainerako ikasleek ere horrela ulertu dutela, denak ados daudela eta emandako azalpenean ñabardurarik falta ez dela (definizioari edo ulermenari dagokionez). Datuak edo ñabardura garrantzitsuak falta badira, irakasleak osatuko ditu.
- Emaitzazko azalpena ona bada, ziurtatu beharra dago denek ulertu dutela. Horretarako, ikasleen ekarpenak baliatuko dira, eta, hainbat strategiaren bidez, azalpena berriz landuko da denen artean.
- Azalpena ona ez bada, berriz, irakasleak garbi geratu ez dena azalduko du.

Irakasleak bermatu behar du ikasleek beren strategiak erabiltzen dituztela gainerakoei azaltzeko, puntuak argitzeko edo ongi ez dagoena zuzentzeko, eta behin eta berriz bultzatu behar ditu gainerako ikasleak solasaldian parte hartzera. Azkenean, bere ekarpen propioak egingo ditu, kontzeptuak garbi gera daitezen.

GEHIAGO JAKITEKO

[Aprendizaje Instrumental accesible para todos y para todas](#), Comunidades de Aprendizaje. Escuela aldizkariaren 5 zenbakiaren separata, 2013ko otsaila

14. TUTORETZA PERTSONALIZATUAK

Tutoretzaren barruan, taldeko tutoretzaz gain (tutoretza hori ordeztzeko inolako asmorik gabe) tutoretza pertsonalizatuaren modalitatea dago. Proposamen horretan, tutore pertsonal gisa diharduen irakasle batek eta ikasleak osatutako binomioa azpimarratzen da. Horren bidez, antolatzen eta ikaskuntzak hobetzen lagundu nahi zaio ikasleari, eskola-bizitzan txertatzen lagunduko dioten curriculum-alderdiak eta alderdi pedagogikoak kontuan hartuta.

Horren helburua da gizarte-inklusioa eta arrakasta akademikoa zaildu dezaketen egoerei aurrea hartzen eta/edo aurre egiten laguntzea.

EZAUGARRIAK

Asmoa itxaropen handi positiboak sustatzea eta irakasleekin eta familiekin autokontzeptu akademiko eta pertsonal positibo bat sustatzeko lankidetzan jardutea da.

Alderdi akademiko indibidualen eta egoera pertsonal, sozial edo afektiboaren inguruko zuzeneko harreman bat ezartzen da tutorearen eta ikaslearen artean. Garrantzitsua da bi aldeek artean harreman edo elkar ulertze ona izatea. Ikasgelako tutorea edota irakasle taldeko beste irakasle bat izan daiteke tutoretza pertsonalaz arduratuko den pertsona.

Garrantzitsuena konfiantzazko eta elkarrekiko errespetuzko giro bat sortu ahal izatea da. Gainera, jarraipen eta arreta sistematikoko baterako konpromisoa dakar inplizituki, eta, beraz, ikasleen eta irakasleen borondatezko onarpena behar da.

Tutore pertsonalaren zeregin nagusia irakasle taldeak eta familiak adostutako plan pertsonalizatua koordinatzea da.

Planak haien artean adostutako helburuak eta konpromisoak, jarraipenaren denborak eta moduak eta ikasgelako tutorearekiko koordinazioa (zeregin hori beste pertsona batek egiten badu) bilduko ditu.

Eskola-agenda tresna egokia da antolamendu akademikoan laguntzeko eta familiarekin komunikatzeko, eta posta elektronikoaren bidez osa daiteke, ahal denean.

Tutoretza horretarako, ikastetxeek proiektuetarako dituzten orduak erabil daitezke.

Tutoretza-une horiek baliagarriak izan daitezke zereginak egiteko, kontzeptuak argitzeko, informazioa bilatzeko edota azterketak, lanak eta abar prestatzen laguntzeko.

Komenigarria izango litzateke ikastetxean figura horri buruzko oinarrizko prestakuntza antolatzea.

Ikaslearekin batera, hasiera batean proposatutako lan-planaren helburuen lorpena eta planaren garapena ebaluatzen da. Horretarako, saioen, elkarrizketen, pasadizoen, elkarrekiko gogobetetzearen mailaren eta abarren erregistroak erabil daitezke.

ANTOLAMENDUA

Tutoretza pertsonalizuaren plangintza: noiz egin daitekeen (ikasleen irakastorduetan ez, salbuespen gisa alternatiba-orduak erabil badaitezke ere), ikasleen denbora nola antolatu behar den, zer bide erabili behar diren, familiarekiko harremana eta irakasle taldearekiko koordinazioa.

Ikaslearekin lan-plan bat ezarri behar da, bi aldeek konpromisoak zehaztuta.

Jarraipena eta baterako ebaluazioa/balorazioa.

DIBERTSITATEARI EMAN BEHARREKO ERANTZUNA

Ikasteko zailtasunak, ikasleenak ez ezik, ikasleak datozen eta bizi diren eskola-testuinguruaren eta gizarte-ingurunearen ondoriozkoak ere badira. Horrela, beraz, desberdintasunei eskaini beharreko arretaren ardatzak ez dira ezaugarri indibidualak, ezaugarri horien eta eskolak eskaintzen dituen irakatsi eta ikasteko baldintzen (antolamendu-baldintzak, baldintza metodologikoak, curriculum-baldintzak eta abar) zein ikasleen familia-, kultura- eta gizarte-jatorriko baldintzen arteko interakzioa baizik.

GEHIAGO JAKITEKO

https://drive.google.com/folderview?id=0BzhvFI3Ym0DCcU9vRjRVVGJaa1E&usp=sharing_eid

15. BERDINEN ARTEKO TUTORETZA

“Berdinen arteko tutoretza” ikasle bikoteak sortzean oinarrituta dago (batek tutorearena egiten du, eta besteak tutoretzapekoarena), eta irakasleek planifikatuta sortzen dira, helburu komun, ezagun eta partekatu batekin.

EZAUGARRIAK

Berdinen arteko tutoretzaren baliabidea abian jartzearen bidez, ikasgela ikastun-komunitate gisa uler daiteke. Komunitate horretan, garrantzitsuena, irakasleak bere ikasleei eskaintzen dien zuzeneko laguntza ez ezik, ikasleek irakaslearen plangintzarekin eta ikuskapenarekin elkarri ematen dioten laguntza ere bada.

Bikoteko bi kideek baliatzen dute ikaskuntza-egoera hori: tutorearena egiten duen ikasleak ikasi egiten du, irakastea ikasteko estrategia ona baita; aldi berean, tutoretzapeko ikaskideak ere ikasi egiten du ikaskide tutoreak eskaintzen dion laguntza pertsonalizatuari esker.

Bikotekideek rola alda ditzakete, gaiaren arabera. Horrela, beraz, aldi batean tutoretzapekoa den ikaslea tutorea izan daiteke beste aldi batean. Adin desberdineko ikasleak ere izan daitezke.

Estrategia beste leku batzuetara zabal daiteke: liburutegira, etxera eta abar.

Adibide batzuk: Bikoteka irakurtzen (9. fitxa), Ikasle enbaxadorea (2. fitxa)

Komeni da ikastetxean tutoretza mota horri lotutako estrategiei buruzko oinarrizko prestakuntza antolatzea.

Berdinen arteko jardunak

- hezkuntza-balioa ematen die ikasleen arteko interakzioei,
- ikasteko aukerak eskaintzen dizkie ikasle guztiei,
- elkartasun- eta soziabilitate-balioak garatzen ditu.
- ...

Berdinen arteko tutoretzako saioei esker, irakasleek denbora dute ikasleak lanean behatzeko eta haien aurrerapenak gogoan hartzeko.

ANTOLAMENDUA

1. Prestaketa-fasea: ikasle tutoreen eta tutoretzapeko ikasleen hautaketa.
2. Tutoretza-saioen diseinua (edukiak, oinarrizko egitura, ebaluazio-sistema).
3. "Pareen" eraketa: ikasle tutorea eta tutoretzapekoa.
4. Ikasle tutoreen prestakuntza.
5. Saioen hasiera, irakasle baten ikuskapenpean.
6. Tutoreen inplikazioari eustea eta, horretarako, jarduera horretan inplikatuta dauden irakasleekin bilera formalak egitea eta harremanetan jartzea.

GEHIAGO JAKITEKO

[Nafarroako Gobernuaren webgunea](#). Berdinen arteko tutoretzari buruzko bibliografia, artikulak eta abar eskaintzen ditu. NHBBZ, Gaitasun handiak.

(Euskaraz) Ahozko euskara lantzeko erabiltzen den sistemari buruzko informazioa, bideo grabazioa... <http://www.mintzanet.net/>

16. FLIPPED CLASSROOM

Izen berria badirudi ere, aspaldi samarretik "alderantzizko pedagogia" deitu izan dena da, hau da, ikasleek aldeztatik aurretik ezagutzen dute hurrengo egunean ikasgelan landuko diren edukien proposamena, eta lehen hurbilketa bat egiten dute. Gaur egun, nahi den aldi guztietan errepika daitezkeen bideoen bidez egiten da.

Irakasleek bideo-sekuentzia laburretan prestatzen dituzte azalpenak, ikaskuntza digitaleko ingurune birtual baten bidez partekatzen dituzte, eta ikusitakoaren/ikasitakoaren jarraipena egiten dute ariketaren baten bidez, aldeztatik aurreko ikaskuntzak egiaztatzeko.

Ikasleak ikasgelan daudela, sekuentzia didaktikoak bideoen bidez ikusitako/landutako ezagutzetan oinarrituta garatzen ditu ezagutza berriak.

EZAUGARRIAK

Ikasgelako denborekin eta interakzio presentzialen konfigurazioa aldatzen du, irakasleek ez baitute aldeztatik aurreko azalpenik eman behar, ezta eduki berak askotan errepikatu behar ere.

Ikasgelan, ikasle bakoitzak helduarekin eta berdinekin interakzioan osatzen ditu bere ezagutza berriak, saioaren aurretik ikusitakoan oinarrituta. Halaber, ariketa berriak egiten ditu material analogikoekin zein euskarri digitalekin.

Mesedegarria da ikasteko autonomia lortzeko, eta, proposamen metodologikoen arabera, talde-lana, interakzioa eta berdinen arteko ikaskuntza ere susta ditzake.

ANTOLAMENDUA

Edukien programazioa zehaztu ondoren, honako urrats hauek egin behar dira:

- Curriculumeko gaiak *dosi txikietan* prestatzea eta hainbat bideotan azaltzea. Bideoak eskolen aurretik grabatzen dira, landu beharreko gai-zerrendari jarraikiz.
- Lan-dinamika ikasteko ingurune birtual baten bidez proposatzea. Ingurune horretan, ikasle bakoitzak materiala eskuratzeko aukera izango du, eta irakasleek haren bilakaera ikusi ahal izango dute, eskolaren aurretik aurkeztu beharreko ariketen bidez.
- Ikasgelan, jarduera pertsonalen zein talde-jardueren antolaketa egoki baten bidez, euskarri digitalak eta analogikoak konbinatzen dira edukiak barnerratzeko. Halaber, parte hartzea eta ikaskuntzen komunikazioa bultzatuko duten lankidetzak-jarduerak proposatzen dira, eta egindako lanak baloratzen dira.

- Eskolaren ondoren, ikasle bakoitzak egindako aurrerapena baloratzen da, eta hutsegiteak edo ikaskuntzen erritmoa zuzentzeko ariketa berriak iradokitzen dira.

EBALUAZIOA

Ebaluazioak etengabea eta interaktiboa izan behar du, ingurune birtualean zein eskola presentzialetan:

alde batetik, irakasleak egiten duena

bestetik, ikasleek beren bilakaerari eta egindako lanei buruz egiten dutena, finkatutako epean amaitzeko.

DIBERTSITATEARI EMAN BEHARREKO ERANTZUNA

Ikasle bakoitzak azalpenak bere erritmoan eta horretarako aukeratzen duen lekuan ikusi ahal izateak –horretarako gailuak dituzte normalean– oso neurri handian bultzatzen du ikaskuntzaren indibidualizazioa.

Ikasle bakoitzak bere ikaskuntza-erritmo propioa izan dezan, proposamen honek ahalbidetzen du:

- saio presentzialak jarraipen pertsonalizatua egiteko eta zalantzak argitzeko baliatzea,
- lankidetzalana bultzatzea
- berdinen arteko interakzioa erraztea

Gainera, ikasleen esku jartzen diren ingurune teknologikoen oso tresna ahaltsuak dituzte (testua pantailan agertzen duten bideoak, erreproduzioak handitzea edo moteltzeko aukera, helduarekiko edo gainerako ikaskideekiko berehalako interakzioa eta abar), eta ikaskuntzen eraginkortasuna eta aprobetxamendua areagotzen dute.

GEHIAGO JAKITEKO

Flipped Matematika [Lekeitioko Institutuko JM. Reyren kanalean](#)

[Eskola antolatzeko estrategiaren eta moduaren azalpena](#), JM. Rey:

Praktika ON 2019 18'

[JM. Reyk metodologia horri eta haren abantailei buruz B06an egindako gogoeta](#), 2017 2'

[Flipped Classroom ikaste-prozesuan](#) Lekeitio BHIko JM. Rey #BERRITSUtabernan 2019 12'

[The Flipped Classroom \(Alderantzizko eskola\), eredu pedagogikoa](#), zentzu komuna aplikatuz, Raúl Santiago, UniR 19'

17. GAMIFIKAZIOA

Gamifikazioa edo ludifikazioa jokoetan erabili ohi diren elementuak eta estrategiak hezkuntza-ingurunean erabiltzea da, ikasleen jarduera fisikoa eta intelektuala sustatzeko eta, era horretan, ikaskuntzak errazteko.

EZAUGARRIAK

Gamifikazioaren helburua ikasleen trebetasunak esperimintazioaren eta jokoaren bidez eta egungo teknologiak ematen dituen aukerak baliatuz ahal den neurrian sustatzea da. Jolasteak eta dibertsioak ematen duten esperientzia positiboa erabiltzen du, ikaskuntza esanguratsuagoak eta funtzionalagoak bultzatzeko. *Jolasten zaren bitartean ikasteko* proposamenak norberaren eta taldearen esperientzia aberasten du eta ikaskuntzak bultzatzen ditu.

Jokoak, hezkuntza-esparruan, autonomia, sormena, erantzuteko ahalmena eta arazoak konpontzeko trebetasuna hobetzen ditu, lankidetzalana, motibazioa eta interesa sustatzen ditu eta arazo errealean simulazioak egiteko aukera ematen du.

ANTOLAMENDUA

Dinamika ludikoaren barruan eskuratu beharreko ikaskuntzak antolatzen dira:

1. Dinamika, probak eta jokalariei eta osagai motak (izenak, rolak, ezaugarriak eta abar) zehazten dira.
2. Arau garbi batzuk zehaztu eta motibazioa eta lortu beharreko helburuak bilatzen dira.
3. Probetan lortu beharreko sariak edo puntuak zehazten dira.
4. Egiten duten aurrerapena neurtzen da, emaitzak indartzeko edo prozesua doitzeko.

GEHIAGO JAKITEKO

[La Gamificación para Aprender](#)

[La Gamificación en las aulas INED21](#)

[UABn egindako Gamifikazio Jardunaldiari buruzko bideo sorta 2017](#)

18. IKUSIZKO PENTSAMENDUA

VISUAL THINKINGA HEZKUNTZAN

Visual Thinking izenekoa lan-metodologia bat da, eta marrazki eta testu sinpleen eta ikusizko gramatikaren funtsezko beste elementu batzuen (konektoreak, espazioaren antolaketa, edukien hierarkizazioa eta abar) bidez errealitateaz *jabetzea* eta errealitate hori irudikatzea du helburu. Errealitatera hurbiltzeko metodo bat da, eta ideiak ikusizko tresnen bidez ikustea, aztertzea, antolatzea eta irudikatzea ahalbidetzen digu.

EZAUGARRIAK

Gizateriaren historian ikusizko narratiba etengabea izan bada ere (labar-pinturak, Egiptoko hieroglifikoak, egungo *grafitiak* eta abar), hezkuntza-esparruan edukiak helarazteko ia modu bakarra letra izan da. 1996. urtean, Rudolf Arnheim psikologoak irudiak, irudikatzeaz gain, ikusizko pentsamenduarekin hertsiki lotuta daudela, ideiak antolatzeko euskarri espazialak direla eta ideiak ezagutzen eta buruz ikasten laguntzen dutela planteatu zuen.

Idea horiek enpresa-komunikazioan aplikatu zituen lehena Dan Roam aholkularia izan zen, mende honen hasieran, eta gure garunaren hitzezko atalaren eta ikusizko atalaren arteko loturak ezartzeko eta ezkerreko hemisferioaren ahalmen analitikoak, linealak eta zehatzak eta eskuineko hemisferioaren pertzepzio globala, espaziala eta ikusizkoagoa bateratzeko premia planteatu zuen.

Ikasten duen pertsonari "**prosumitzaile**" deitzen dio, hau da, informazioa produzitzen eta kontsumitzen duena, eta bi modutara hurbiltzen da jakintzara:

- **kontsumitzaile** kritiko gisa, testu konplexuetan dauden pentsamendu-egiturak eta pentsamendu-ereduak aztertzen eta ezagutzen ditu,
- **sorkuntza-produktore** gisa, ezagutza berria irudien, testuen eta ikusizko gramatikaren bidez sintetikoki irudikatzeke gai izan behar du.

Formaturik ezagunenak ikusizko mapak, Graphic Recording izenekoa –talde-dinamiketan erabilia– eta ikusizko oharrak (sketchnoteak) dira.

ANTOLAMENDUA

Visual Thinkinga hezkuntza-maila guztietan askotariko pertzepzioei eta adierazpenei erantzun egokia emateko erabil daiteke:

1. Eskolatzearen lehen urteetan, ikusizko mapa sinpleak egin daitezke, eta ideiak eta kontzeptuak ideia horiek sintetizatzen dituzten irudiekin lotu daitezke. Produkzioak taldeen bateratze-lanak egiteko edo jarduerak planifikatzeko erabiltzen dira.
2. Goiko mailetan, ikusizko oharren bidez apunteak hartzeko eta ikus-entzunezko testuak aztertzeke erabil daiteke, edukien egitura bilatuz eta kontzeptuak eta ideiak marrazkiekin eta testuekin antolatuko dituen ikusizko mapa batean jasoz.
3. Adin guztietan, testuak eta irudiak konbinatuko dituzten ikusizko kontakizunak planteatu daitezke, eta adin eta ikastetxe bakoitzean eskuragarri dauden baliabide digitalak erabiliz parteka daitezke. Multimedia produkzio horiek (irudiak eta testuak ahotsekin eta musikarekin, bideo edo aurkezpen moduan grabatuak) ikasleen adierazpen-ahalmena areagotzen dute, eta komunikazio digitala ahalbidetzen dute, bai hurbileko hezkuntza-komunitatean (familiak, auzoa/herria), bai erabili ohi dituzten sare sozial globaletan.
4. Ikasleen lan-ingurune analogikoetan edo digitaletan, sekuentzia didaktikoak ikusiz antolatzeko edo ikasleen lana irakatsi eta ikasteko ingurune birtualetan ikusizko gramatika gisa gidatzeko, egungo ikus-entzunezko kulturara ohituago dauden ikasle gazteen egungo kulturarekin konektatuz. Visual Thinkinga, halaber, tresna ahaltsua da eskola-lanaren denbora planifikatzeko eta antolatzeko.

GEHIAGO JAKITEKO

INTEFen materiala irakasleen prestakuntzarako (“Visual Thinking en educación”): <https://labur.eus/VisualThinking>

Garbiñe Larralde-ren web orria: <http://enredarteayudaaprender.blogspot.com>

Juan Villar-en websitea: <https://irjuan.wixsite.com/mapa>